



## MUNDUKO GAZTE KORUA/WORLD YOUTH CHOIR (WYC)

2010eko UDA

### PARTE HARTZAILEEN AURREHAUTAKETARAKO AUDIZIOEN DEIALDIA

Munduko Gazte Korua (WYC), IFCM Nazioarteko Abesbatzen Federazioak bultzatua eta laurogei gaztez osatua, herrialde desberdin batean bildu ohi da urtero entseguak eta kontzertu-birak egiteko. Aurten, EA Eren elkarlanarekin, WYC abesbatza Tenerifen bilduko da, eta ondoren, uharte horretan nahiz Espainiar penintsulan kontzertuak eskainiko ditu. WYC abesbatzak, "Bakearen aldeko artista" aitortpena du, UNESCOk emana.

#### DATAK :

2010eko uztailaren 5ean iritsiko dira Tenerifera.

Uztailaren 6tik 16ra, entseguak.

Uztailaren 17tik 29ra, kontzertu-bira.

Uztailak 20 : Kontzertua Donostiako Kursaal auditoriumean.

#### IZANGAIEN BALDINTZAK :

Adina : 17 eta 26 urte bitarte, 2010eko uztailaren 1ean.

Hizkuntza: Jarduera ingelesez burutuko da. Beraz, hizkuntza hori ulertu egin beharko da.

Parte hartzaileen ardura izango da :

- ♪ Dokumentazioa eguneratua edukitzea (pasaporte eta NAN).
- ♪ Gastu pertsonaletarako eta antolakuntzak aurreikusi gabeko jardueratarako eskudirua.
- ♪ Joan-etorriko bidaia.

Antolakuntzaren esku egongo da :

Ostatua, otorduak eta barneko joan-etorriak, baita beharrezkoa den material musikala.

#### IZENEMATEA :

EAEko Idazkaritza Nagusian egin beharko da, **2010eko otsailaren 2a baino lehen.**

Izangaiak, agiri hauek aurkeztu beharko dituzte :

- ♪ Izenemate orria eta parte hartzeko aitortpen/kontratua, dagokion eran beteta.
- ♪ Pasaportearen lehenengo orriaren fotokopia, eta karnet motako bi argazki JPG formatuan.
- ♪ Gurasoen edo legezko tutorearen baimena, adingabeen kasuan (izenemate orrian bertan dago).
- ♪ Curriculum osoa (gehienez 100 lerro), ingelesez, musika-hezkuntza, hizkuntzak, koruan duen esperientzia, sariak, grabazioak, eta abar azalduz.
- ♪ Idatzi bat (gehienez 20 lerro), ingelesez, WYC abesbatzan parte hartzera zein arrazoik bultzatzen duten adieraziz.

## AURREHAUTAKETARAKO PROZEDURA :

Izangaiak aukeratzeko **audizioak** Tolosako Hodeiertz abesbatzaren egoitzan egingo dira (Nafarroa etorbidea, z/g. Postetxeko eraikina, alboko kaletik sartuta, 1.go solairua, Tolosa), datorren **otsailaren 6an, goizeko 11:00etan**.

Izena emateko, EAerekin harremanetan jarri beharko duzue otsailaren 2a baino lehen (943 67 00 13 telefonoan edo [korlakeae@euskalnet.net](mailto:korlakeae@euskalnet.net) helbidean).

Audizioak **4 zati** izango ditu :

1. Lehen begiratuko irakurketa : a capella, prestatzeko minutu t'erdirekin.
2. Ahots-erregistroko froga : Ariketa laburra, a capella forte abestuz, bokal ireki batekin, izangaiaren ahots-tesitura erakutsiz.
3. Derrigorrezko obra : Gyorgy Orban maisuaren Stabat Mater piezaren zati bat. Izangaiak latinez abestu beharko du bere zatia. Antolakuntzak piano-jotzaile bat ipiniko du, gainontzeko ahotsen pianorako murrizketa joko duena. EAEk posta elektronikoz bidaliko du partitura, eskatu ahala.
4. Aukera askeko Aria edo Lied bat : pianoaren laguntzarekin edo gabe (kasu honetan, izangaiak ekarri beharko du piano-jotzailea). Prestatutako partitura, dagokion oktaban eta izangaiak parte hartu nahi duen kordan abestu beharko da.

*Oharra: Aria zail bat kantatu ordez, abeslarietara gomendatzen zaie beraien ahotsarekin eta ahots-estiloarekin bat datorren partitura aukera dezatela, horrela beraien potentziala hobeto erakutsi ahal izateko. Euskal musikagile baten aria edo lied bat ere kanta dezakete.*

Audizioa egiterakoan, izangaiak aukera askeko partituraren lau kopia ekarri beharko dituzte.

**Audizio hau grabatu eta IFCM Nazioarteko Abesbatzen Federaziora bidaliko da, WYCKo abeslarien AZKEN aukeraketarako.**